



Usurbilgo Udala



**“ARTZABAL” ERAIKINEAN KOKATZEN DEN USURBILGO “GURE PAKEA”
JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIA
ADMINISTRAZIO KONTRATU BEREZIA
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK**

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza plegu honek monumento izendapena duen ARTZABAL eraikinean kokaturiko Usurbilgo udaleko “GURE PAKEA” Jubilatuen lokaleko portxea, sarrera, taberna, jangela eta bertan dauden elementu eta instalazioen kudeaketa kontratuaren esleipena eta exekuzioa arautzen ditu.

Kontratu honen xedea, Usurbilgo udalaren helburu eta zereginekin lotua dago eta zuzenean eta berehala Udal honen eskumen zehatzekoa den helburu publiko bat betetzen du. Beraz, sinatuko den kontratua izaera administratibo berezikoa izango da, azaroaren 14ko Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2001 Errege Dekretu Legegilearen (aurrerantzean SPKLTB) 19.1.b) artikuluan xedatua dagoenaren arabera.

2.- HAUTAKETA ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Zerbitzuaren kontratua adjudikatzeko prozedura irekia izango da. Edozein enpresarik aurkeztu ahal izango bere eskaintza, negoziaketa modu oro bazterturik geratuz, SPKLTB-ren 157. artikularekin bat.

3.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren hasierako iraupena **5 urtetakoa** izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, beste 5 urte gehiago, guztira 10 urte bete arte, Kontratazio Organoak berariaz hori erabakiko balu. Horretarako, baldintza plegu honetan aurreikusitako jardunbidea jarraituko da:

- Esleipendunak kontratua luzatzeko eskaera egingo du, kontratuaren indarraldia amaitu baino bi hilabete aurretik, gutxienez, luzapen honetan interesa badu.



Usurbilgo Udala



- Idazkaritza, Kontu-hartzailletza eta Gizarte Ongizateko udal zerbitzu teknikoetako arduradunek zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipen-proposamenari buruzko txostenak egingo dituzte, bakoitzari dagokion arloan.
- Kontratazio-organoak luzapenari buruzko erabakia hartuko du. Kontratuaren epea amaituz gero, Usurbilgo udalak berreskuratuko du objektu den lokala bere instalazioak eta ekipamendu guztiarekin.

5.- BERME EPEA

Hilabete bateko epea ezarri da, kontratua amaitzen den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean Testu Bateratuaren eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako. Berme epean esleipendunaren kargu joango dira lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

6.- ORDAINDU BEHARREKO KANONA

Lizitazioaren oinarrizko kanona, hileko 1.000 euro (% 21eko BEZ 210 euro, guztira 1.210 euro) da. Lehen bost urtetako iraupenerako 60.000 euro (BEZ barne 72.600 euro), eta luzapen guztiak kontuan harturik 120.000 euro (BEZ barne 145.200 euro).

Lizitatuak beraien proposamen ekonomikoan kanon hau hobetu ahal izango dute. Esleipendunak Usurbilgo Udalarari hilabete bakoitzeko hamargarren eguna baino lehen ordainduko dio kanona.

Kanona berraztertu ahal izango da, sinatu zenetik bi urte igarotakoan eta %20a exekutatuta egotean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 89tik 94 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera. Berraztertzea dagokion edo ez, eta kasu horretan aplikatu daitezkeen prozedura eta indize espezifikoa, araz onartutakoaren artean kontratu honetako kostuen eboluzioa egokien islatzen dutenak izango dira.

Usurbilgo Udala ez da erantzule izango hornitzaileei ez bazaie ordaintzen, ez eta hirugarren batzuek instalazioetan egin ditzaketen hondamen edo lapurretena ere.

7. KONTRATUAREN FINANTZIAKETA

Kontratu hau gauzatzeko Usurbilgo Udalaren aldetik ez du finantziatorik eskatzen. Esleipendunaren diru sarrerak tabernaren eta jangelaren ustiapenetik eta orokorrean tabernako eta jangelako erabiltzaileengandik eratortzen diren kobrantzek osatuko dute. Esleipendunak prezio bereziak jarriko dizkie tabernako eta jatetxeko zerbitzuei, jubilatuei dagokionean. Prezio hauek Usurbilgo Udalak ezarriko ditu, bere kasuan, urtero, Jubilatu



Usurbilgo Udala



Elkartekin eta tabernariekin aztertu ondoren. Gaur egungo prezioak I. Eranskinean agertzen dira.

Tabernaren ustiapenaren etekin ekonomikoak esleipendunaren gain eta bere galorde izango dira. Usurbilgo Udalak ez du esku hartuko, inolako eratan, ustiapenaren finantzaketan; eta ez dio esleipendunari gutxieneko diru-sarrerara edo etekinik ere ziurtatuko, ez eta inolako diru-laguntzarik ere emango.

8.- KONTRATUA BURUTZEA

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak.

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratiboak lortzea beti esleipena jaso duenaren kontura joango da, eta bere izenean eskatu beharko ditu. Bere kasuan, tasa edo baimenen ordainketa kanonaren kopurutik kanpo egongo da.

Kontratatik, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoan orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitatearen erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondorioz eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei. Kontratatik beharrezko langile egokiak kontratatu beharko ditu.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du. Esleipendunak kontratua behar bezala burutzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak egingo ditu, bestelako ordainik gabe, lan-bilera eta informazio-bileratara joatea barne.

ERREKLAMAZIO LIBURUA

Esleipendunak, Udalak bisaturiko Erreklamazio-Liburua eduki beharko du erabiltzaileen eskueran, horiek, egokiak deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituztelarik.

MATERIALA



Usurbilgo Udala



Usurbilgo udalak, kontratu hau hasi aurretik, tabernako instalakuntza guztien funtzionamendu egokirako behar diren lanabes eta tresnak jarriak izango ditu (ikus inbentarioa, II. Eranskina).

Udalak beharrezko materiala jarriko du. Udalak beharrezkotzat jotzen duen materialaz gain esleipendunak beste gauza batzuk erosten baditu, edota ezarritakoak hobetzen dirua gastatzen badu Udalak ez dizkio gastu horiek ordainduko, bere kontura izango dira. Dena den, bere kontura erositako gauzak eraman ahal izango ditu zerbitzua emateari uzten dionean, baldin eta eramateko modukoak badira. Udalaren gauzetatik bereizi ezin badira, bertan geratuko dira, baina horregatik ez du inolako ordainketarik jasoko.

OBRA DEBEKUAK

Kontratu honen gai diren instalakuntzetan edozein obra egitea debekatua dago, konponketa txiki eta kontserbazio lanak ezik, eta bere nortasunean eragina duten aldaketak ere ezingo dira sartu, udalaren baimen zehatz eta idatzizkorik gabe.

Esleipendunak ezingo du inolako publizitate karteldegirik ezarri kontratu eraikin edo instalakuntzetan.

9.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita dago.

Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

Langileen subrogazioari dagokionean, bere kasuan lan arloko legediak eta aplikagarri den Lan Hitzarmenak xedatutakoaren arabera jokatu da.

Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribitutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukanbeharrekin. Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein kasutan, entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.



Usurbilgo Udala



Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebeharrak bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabeen baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enpleguaren eta enplegatzailearen arteko kontratu loturak dakartzen eskubide eta betebeharrak guztiak.

10.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN

Kontratuaren jabea izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalteen eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Kontratua betetzean, esleipendunak bere jardueragatik eragindako kalteei erantzuteko aseguruia eduki beharko du, gutxienez **300.000 eurokoa**, gerta litezkeen kalte guztiak bere gain hartzeko. Baldintza hau frogatzeko, jatorrizko poliza eta primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiria aurkeztu beharko ditu. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 223. artikulua argitaratuta, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direlako Udalak kontratua aldatzea izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.

12.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (ahozko parte) egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten langileek.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:



Usurbilgo Udala



- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Usurbilgo Udalak erabakitako froga egitea.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Zerbitzu hizkuntza, erabilera herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.

Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Era berean, udaletik jasotzen diren idatziak euskaraz jasoko ditu enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Gizarte Ongizate zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena. Baldintza hauek ezinbesteko baldintzak dira eta hauek ez betetzeak kontratua amaitzeko aukera emango du.

14.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Ezin izango da ez kontratua laga ez azpikontrataziorik burutu.

15.- KONTRATUA AMAITZEA



Usurbilgo Udala



Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorriz eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak betetzen ez badira, edo eta Kontratuaren Legearen 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik; halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udalak, administrazio-kontratugile gisa, eskubide hauek izango ditu:

- Zerbitzua behar bezala emateko komenigarritzat jotzen dituen jarraibideak eta aginduak ematea.
- Lanen kalitatean, kantitatean, denboran edo lekuan aldaketak agintzea, baldin eta interes publikoak horrela eskatzen badu.

Kontratazio Organoak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategineko 210 artikulua arabera, hurrengo eskumen hauek dauzka:

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
- c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea. Edozein kasutan, entzunaldia emango zaio kontratistari, eta jarraitu beharko dira azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoetako Kontratuaren Legearen Testu Bategineko 211 artikulua aurreikusten dituen tramiteak.

Udalak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako pertsonen bitartez.

Kontratua interpretatzeko, aldatzeko, amaitutzat jotzeko edo horren ondorioak zehazteko kontratazio-organoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

17.- ESLEIPENAREN PROZEDURA



Usurbilgo Udala



Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

a) Kanon eskaintza: gehienez 40 puntu (C gutun-azala)

Gutxieneko kanonaren kopurua hileko 1.000 euro dira (%21eko BEZ-a 210 euro, guztira 1.210 euro). Kopuru hori eskaintzen duenari 0 puntu emango zaizkio.

Kanon kopuru altuena eskaintzen duenak 40 puntu jasoko ditu, eta gainontzeko eskaintzei proportzionalki emango zaizkie puntuak, eskaintza altuenaren eta pleguetako kopuruaren puntuekiko.

b) Proposamenaren balio teknikoa: gehienez 40 puntu (B gutun-azala)

- Ustiapen proiektua: zerbitzuaren diseinua eta antolakuntza, eman beharreko zerbitzuak eta horretarako baliabide materialak, otorduak, produktuak, gutxieneko egutegi edo ordutegia zabaltzea; egoeraren, inguruaren eta negozio-aukeren azterketa; ustiapen ideiak, etab. (20 puntu)
- Usurbilgo herriaren ezaugarrietara egokitutako proposamena izatea (12 puntu)
- Zerbitzuaren, lanaren eta langileen antolaketa, lanaren jarraipenerako mekanismoak (8 puntu)

c) Lana egikaritzeko esleitutako langileen titulazioak: gehienez 5 puntu (C gutun-azala)

- Sukaldaritzako gradu titulazioa, edo sukalde edo sukaldaritzako goi-mailako teknikaria: 2 puntu
- Sukaldaritzako erdi-mailako titulazioa: puntu 1
- Sukaldaritzako Lanbide Hastapeneko edo sukaldari-zerbitzari langilearen titulazioa: 0,5 puntu

d) Proposatutako inbertsio hobekuntzak: gehienez 5 puntu (C gutun-azala)

Taberna, jangela edo sukaldeko makinaria, tresneria, altzari edo instalakuntzetan proposaturiko inbertsio hobekuntzak (udalak interesgarriztat jotzen dituenak soilik): gehienez ere 5 puntu, 1.000 euroko inbertsio kopuru bakoitzeko puntu bat, gehienez ere 5.000 euro arte.

C gutun-azalean kopurua adierazteaz gain proposaturiko inbertsioen zerrenda eta datu edo ezaugarriak ere zehaztu beharko dira.



Usurbilgo Udala



e) Bestelako hobekuntzak: gehienez 5 puntu (B gutun-azala)

Udalak interesgarritzat jotzen dituenak soilik eta beti ere kontratuaren objektuari loturikoak.

18.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi Iparragirre, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, arloko Zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontuhartzailea, Bokal gisa
5. Nerea Altxu Marques, arloko burua, Bokal gisa
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa

19.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua xedatzen dituen debeku kasuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 23. klausulan ezarritako baliabideen arabera egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez parte hartu ahal izango dute, horretarako emandako ahalaren bidez. Kontratatzekeo aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lizitatzailen helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzeneko harremana duten jarduerak egitea, eta hori gauzatzeko, giza baliabideak eta beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak izan beharko dituzte.

20.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea baldintza hauetan aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Erregistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. Usurbil

ORDUTEGIA: 8etatik 14:30etara

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da honako atari informatiko edo webgunean: www.usurbil.eus



Usurbilgo Udala



Eskaintzak lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta **20 egun naturaleko epean**, hurrengo egunetik kontaktzen hasita, aurkeztuko dira.

Proposamenak posta, telefax edo bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatutako edozein lekuetan.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresariak bidalketa data frogatu ahal izango du Posta bulegoan, eta kontratazio organoari eskaintzaren igorpena jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, espediente zenbakia, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena idatziz jasoz.

Aipaturiko telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkariak luzaturiko dilijentzia bidez egingo da. Lizitazio iragarkian zehazturiko epea amaitu ondoren kontratazio organoak proposamenen bat jasoko balu bi ukanbehar horiek bete gabe ez da proposamen hori onartuko. Edonola ere, epe horretatik 10 egun igarota aipaturiko agiriak ez balira jasoko hau ere ez da onartuko.

Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen erabilerak gainera azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak bere hamaseigarren xedapen gehigarrian zehazturiko ukanbeharrak bete beharko ditu.

Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, halaber, aldi baterako enpresa proposamenik aurkeztu banako gisa eskaintzarik aurkeztu duen kasuetan edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagotan egonez gero. Arau hauen urraketak berak aurkezturiko eskaintza guztiak ez onartzea eragingo du.

Eskaintza aurkezteak plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

21.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak itxitako 3 gutun-azaletan aurkeztuko dira, lizitatzailleak sinaturik eta jakinarazpenetarako helbidea zehaztuz. Halaber, gutun-azalaren izendapena eta honako aipamena jasoko da: "ARTZABAL" ERAIKINEAN KOKATZEN DEN USURBILGO "GURE PAKEA" JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azalen izendapena honako hau da:

- «A» gutun-azala: Agiri Administratiboak.
- «B» gutun-azala: Balore judizio baten arabeko balorapenerako agiriak.



Usurbilgo Udala



- «C» gutun-azala: Eskaintza Ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikatzeko agiriak.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak idatziko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalak sinaturik egon behar dute.

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriak originalak edo legeztaturikoak izan beharko dute, indarrean dagoen legediarekin bat.

Gutun-azal bakoitzaren barruan hurrengo agiriak eta hauen zerrenda zenbakitua sartuko dira:

“A” GUTUN-AZALA **AGIRI ADMINISTRATIBOAK**

a) Lizitatzzailearen Ardurapeko Aitorpena, Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzearena.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

ARDURAPEKO AITORPEN EREDUA

Izena:.....Helbidea: NA zk., telefonoa....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edoren ordez., helbidea eta NA edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izan), “ARTZABAL” ERAIKINEAN KOKATZEN DEN USURBILGO “GURE PAKEA” JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA kontratatzeke Usurbilgo Udalak deitutako prozedura irekia ezagutu eta

BERE ERANTZUNKIZUPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:

LEHENENGO. Lizitatzzaileak Administrazioarekin kontratatzeke legalki eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta esleipedun izatea proposatuko balitz, kontratazio organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkeztuko lukeela, esleipenaren aurretik, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearen, 3/2011 E.D. Legegilearen 146 artikulua dionari jarraiki. Horrela, esleipenaren aurretik, pertsonalitate juridikoa, ordezkaritza, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta



Usurbilgo Udala



Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkeztu beharko duela.

BIGARRENIK. Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela:.....

Eta horrela jasota geratu dadin, honako aitorten hau sinatzen dut.

....., 2016eko aren(a)
Izenpea

“B” GUTUN-AZALA
BALORE JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO AGIRIAK

Balore judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideei dagozkien agiriak barne hartuko ditu.

“C” GUTUN-AZALA
ESKAINITZA EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATZEKO AGIRIAK

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

Izen-
abizenak.....Helbidea
..... Posta kodea, NAN zenbakia,
Telefonoa, Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-
abizenak NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo
juridikoa denaren arabera), “ARTZABAL” ERAIKINEAN KOKATZEN DEN USURBILGO
“GURE PAKEA” JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA kontratatzekeo prozedura
irekiko espedientea ezaguturik, adierazten dut kontratuaren oinarri diren Pleguak
ezagutzen ditudala eta osoki onartzen ditudala, lizitazioan parte hartuz eta kontratuaren
edukia burutuz honako baldintza hauekin:

-Kanona:..... euro/hileko eta % Balio Erantsiaren Zergari
dagokion euro, guztira euro, BEZ barne.



Usurbilgo Udala



- Lantaldeak honako titulazio hauek dituela:.....

- Kopuru honetako inbertsio hobekuntza egingo ditudala: euro (proposaturiko inbertsioen zerrenda, ezaugarriak eta datuak ere erantsi beharko dira ezinbestez).

....., 2016eko aren(a)

Izenpea

22.- AGIRIAK KALIFIKATZEA

Kontratazio Mahaiaren bilkura publikoen deialdiak udal web orrian (www.usurbil.eus) argitaratuko dira.

Kontratazio Mahaia osatuko da eta "A" gutun-azala ireki eta bertan jasoriko agiri administratiboak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa izanez gero, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du lizitatzailleak aurkezturiko agirietan ikusi diren akats edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Ondoren, judizio balore baten arabera irizpideak jasotzen dituen "B" gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu. Proposamen horien irakurketaren ondoren, Mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu, Pleguetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera balorapena egin ahal izateko.

Berriz ere Kontratazio Mahaia bildurik, judizio balore baten arabera irizpideen ponderazioa ezagutaraziko da. Ondoren "C" gutun-azalak irekiko dira.

Judizio balore baten arabera diren irizpideen balorapenaren (B gutun azala) eta ponderazio automatikokoak diren irizpideen (C gutun-azala) balorapenaren ondoren, Kontratazio Mahaiak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaillea proposatuko du.

23.- AGIRIEN ESKAERA

Kontratazio-organuak proposamen ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun baliioduneko epean aurkeztu ditzan. Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen



Usurbilgo Udala



agiriak (originalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzailleak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzaillea pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.
- Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen duen agiria, bat edo beste;

- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan, gutxienez urteko 12.000 eurotakoa.
- Arrisku profesionalengatiko segurua 300.000 eurotakoa

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Bi baldintza hauek ziurtatzen dituzten agiriak aurkeztuz:



Usurbilgo Udala



- *Azken 5 urteetan ostalaritzan emandako zerbitzuak*, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, urteko ordu kopurua eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak (arlo pribatuan eman bada, kontratuak, bizitza laborala, autonomoetako alta paperak etab.). Azken 5 urteetan gutxienez lizitazio honen kopuruaren antzeko 2 zerbitzu eman dituztenek ulertuko da kaudimena dutela.

- *Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako langileen, eta bereziki, kontratua gauzatzeko ardura duten langileen titulazio akademiko eta profesionalak:*

– Langileek: Elikagaien manipulatzaile titulua eta ahozko B2 maila.

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailleari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

g) Aseguru Poliza eta ordain-agiria.

h) Langileek plegu administratibo eta teknikoetan zehazturiko ezaugarriak betetzen dituztenaren gainerako titulu eta ziurtagiriak (langile zerrenda, hizkuntz eskakizuna, ikasketa titulazioak,...).

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 23.a), 23.b) eta 23.c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. **Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.**

Administrazioarekin kontratatzeke eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

24.- BEHIN BETIKO BERMEA

Ekonomikoki abantaila gehien dituen proposamena aurkeztu duen lizitatzailleak esleipen kopuruaren %5eko bermea eratu izana ziurtatu beharko du, Balio Erantsiaren Zerga kendurik.



Usurbilgo Udala



Bermea ez da itzuli edo deuseztatuko berme epea amaitu eta kontratua modu egokian gauzatu arte.

Berme honek Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 100. artikulua jasotako kontzeptuengatik erantzungo du, kontratua amaitzetik hilabete bateko epean.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak. Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

25.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

Eskaturiko agiriak jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du hurrengo BOST EGUN BALIODUNETAN. Esleipena hautagai edo lizitazaile guztiei jakinaraziko zaie, eta aldi berean, Kontratazailearen Profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena hartzaileak jaso izana ziurtatzen duten edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da. Bereziki, lizitazaile edo hautagaiek haien proposamenetan zehazturiko helbide elektronikora bidali ahal izango da, ekainaren 22ko 11/2007 Zerbitzu Publikoetarako Hiritarren Sarbide Elektronikoko Legeko 28. artikulua araber. Jakinarazpena ukatutzat hartzeko epea 10 egun naturalekoa izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 artikulua ondo ondoekin.

26.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa esleipenaren jakinarazpena jaso eta 15 egun balioduneko epean egingo da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

27.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunaren betebeharrak izango dira eta ondorioz, Usurbilgo udalaren eskubideak, lizitazio honen gai den zerbitzuaren eskaintza eta dotazio zintzoari dagozkionak, orokorrean, eta zehazki, ondorengoak:

1.- Esleipendunak, honako plegu honetan ezarritako ezaugarriei eta Usurbilgo udalak zerbitzu-ematea ikusirik sartu nahiko lituzkeenei estuki lotuz bete eta antolatu beharko du zerbitzua.



Usurbilgo Udala



- 2.- Kontratua esleipendunaren arriskuz eta zoriz gauzatuko da.
- 3.- Kanona hileru ordaintzea baldintza plegu hauetan xedaturiko moduan.
- 4.- Zerbitzua eskaintzea, aurrikusitako iraupenez, sor daitezkeen ezustekoetan azkartasunez eta eraginkortasunez erantzunez.
- 5.- Esleipendunak Udalaren hizkuntza-jarduera arautzeko planen arabera jokatzeko. Zentzu horretan, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Hots, esleitutako langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-jasoleak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.
- 6.- Esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz behintzat ezagutzera ematea eta, halaber, elebrietan emango balitu, euskarari lehentasuna ematea.
- 7.- Esleipendunak Udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izatea.
- 8.- Tabernako salmenta prezioak (prezio orokorrak, jubilatuenak ez direnak) esleipendunak erabakiko ditu, baina herriko establezimenduetan ezarritakoen batzuek bestera egokitu beharko dituztelarik, azken horiek ezingo direlarik gainditu. Jubilatuei dagozkien prezioen inguruan, Udalak hiru jubilatuen etxeekin adostuko dituenak errespetatu beharko dira.
- 9.- Esleipendunari dagokio ondasun eta makineriaren mantenua eta baita mobiliario eta tresnena, bere kontura joango direlarik bere zabarkeriaz honda daitezkeen mobiliario eta tresnen ordezkapena. Era berean, kontratuaren amaieran udalak jarritako ondasun guztiak kontserbazio egoera onean itzuli beharko ditu esleipendunak, erabilerarengatik izandako desgastea salbu.
- 10.- Udalak ordaintzeko betebeharra hartu duen fakturez gain, beste faktura guztiak ordaintzea. Udalak oinarrizko horniduren fakturak (argia, ura eta estolderia, gasa eta hondakinak) ordainduko ditu, eta baita udalaren jabetzakoak diren etxetresna elektrikoaren erosketatik datozenak ere, hauek erabileraren ondorioz hondatzen badira (zabarkeria edo istripuen ondorioz hondatzen badira esleipendunak erosi beharko ditu berriak). Etxetresna elektrikoaren konponketen kasuan, udalak 200 eurotik gorako konponketak ordainduko ditu. Kopuru horretatik beherako konponketa txikiak esleipendunak ordaindu beharko ditu.
- 11.- Instalakuntza eta osagaien mantenu gaitan legez eskatutako gutxiengoak betetzeaz arduratuko da esleipenduna, horretarako behar diren erakunde eta enpresa homologatuekin dagozkien mantenu eta berrikusketa kontratuen bidez (gastuak bere kontura izango dira).
- 12.- Greba edo itxiera patronalaren kasuetan, esleipendunak Agintean eskuetan jarri beharko ditu zerbitzuko material eta osagai guztiak eta bere kargu hartu beharko du aipatu Aginteen prestakuntzarekin jarraitu ahal izateko izenda dezaketen langilegoa ere. Edozein kasutan ere, adierazitako ekintzak hasi aurretik gutxiengo 48 orduko aurrerapenez jakinarazi beharko dio Usurbilgo udalari.
- 13.- Lan legeadi, lan babesa eta industriaren legezko xedapenak, nahiz aurrikuspen entitate eta gizarte segurantzari dagozkionak betetzea, bere arlo eta erregulazio guztietan, arauak ez betetzeagatik eta lan izaera duten gainontzeko urrapenetatik erator daitezkeen arduretatik kanpo geratuko delarik Usurbilgo udala.



Usurbilgo Udala



- 14.- Gutxiengo 300.000 € ardura zibileko aseguru egitea, kontratu gai den zerbitzua betetzerakoan eta, orokorrean, esleipendunari egozten zaizkion betebeharren eremuan hirugarren pertsonari eragin dakizkiekeen kalteen ordainei aurre egiteko.
- 15.- Esleipendunaren kargura izango dira, kontratu-gai den zerbitzua eskaintzeko bere jardueratik ordaindu beharreko zerga, eskubide eta tasak, estatuko tributuak nahiz probintziakoak (baldintza plegu hauetan xedatutakoaren arabera Udalak ordainduko dituenak ezik).
- 16.- Kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezingo ditu berrakuratu, utzi, ez eta eskualdatu ere esleipendunak Usurbilgo udalaren baimenik gabe. Honek, baimen hori eman dezake horretarako lege baldintzak badaudela uste badu eta esleipendunak eskaintzen dituen baldintzak kontsideratuz, zerbitzuaren eskualdaketari dagokion baimena emateko berme gehiago ere ezar ditzakeelarik.
- 17.- Azpikontrataziorik ezin izango da egin.
- 18.- Zerbitzuaren langilegoak, guztiz zuzen jokatu beharko du jendearekin.
- 19.- Usurbilgo udalak horretarako izendatutako pertsona baten bidez esleipendunaren esku dauden lan, material eta tresneriak arakatu nahiko balitu, horretarako baimena eman eta erraztasunak jarri beharko ditu esleipendunak.
- 20.- Janarien manipulaztaile txartelak eta jarduerari aplikagarri zaion legediak eskatutakoak betetzea esleipendunak edota bertako langileek.
- 21.- Prezioen zerrenda beti erakusgai edukitzea (orokorra eta jubilatuei dagozkien prezioen zerrenda). Jubilatuei aplikatu beharreko prezioei dagokionean udalak adostutakoak aplikatu beharko dira derrigorrez.
- 22.- Esleipendunarekin loturiko ondasun eta instalazioak ez zamatzea.
- 23.- Izan litezkeen ezintasun eta bateraezintasunak jakinaraztea, gertatzen direnetik 15 eguneko epean.
- 24.- Udala informatzea eskaintzan aurkeztutako pertsonalgoan edozein aldaketa egiteko.
- 25.- Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, Aldizkari Ofizialetan iragarkien sortutakoak eta hala badagokio, findatzak jartzearen ondorioz eta eskritura publikoan, haren kopiez, kontratua formalizatzearen ondorioz sortutakoa.
- 26.- Legearen arabera, lizitazioak eta kontratuak sortzen dituen zerga guztiak ordaintzea.
- 27.- Eskatzen zaion idatzizko informazioa ematea, honako kontzeptuengatik: izandako diru-sarrerak, erabiltzaile-kopurua, gastuak, gertakizunak, jarduerak etab.
- 28.- Udalak ezarri, edota eskaintzan zehaztu eta udalak onartutako ordutegian taberna zabalik eta jardueran edukitzea.
- 29.- Zerbitzuaren arduradun bat izendatzea, Usurbilgo Udalarekin harremanak mantentzeko.
- 30.- Baldintza Pleguetan eta indarrean dagoen arautegietan aurreikusten diren gainontzeko baldintzak errespetatzea.
- 31.- Komunak garbitu behar ditu eta beraien egoeraz arduratu. Edozein herritarrek izango du komun hauek erabiltzeko eskubidea. Horiek irekitzeko obligazioa edukiko du esleipendunak, taberna zabalik dagoen ordu guztietan zehar. Era berean, udal lokalen



Usurbilgo Udala



erabiltzaileei komunaren erabilera bermatzeko, udalak komun horien kudeaketaren inguruan emandako agindu eta irizpideak bete beharko ditu esleipendunak.

32.- Jantoki-taberna eta komunez gain, portxea eta sarrera garbitu beharko du, eta espazio hauek txukuntasun osoz mantendu.

33.- Baita ere egoitzako hainbat lokalen atezaintza lanak eraman beharko ditu aurrera, lokalak ireki eta itxiz.

34.-Era berean, esleipenduna pertsona juridikoa denean, kontratu-gai den zerbitzuarekin zerikusia duten helburu sozialak aldatuko balitu, aldakuntza horien notaritza agiria aurkeztu beharko dio Usurbilgo udalari gertakari hori suertatzen denetik hamabost eguneko epean.

28.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunaren eskubideak izango dira ondorengo artikuluan jasotzen diren Usurbilgo udalaren betebeharratik ondorioztatzen direnak.

29.- USURBILGO UDALAREN BETEBEHARRAK

Usurbilgo udalaren betebeharrak izango dira, eta ondorioz esleipendunaren eskubide, honako hauek:

1. Usurbilgo udalaren kontura joango da taberna funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa den hornikuntza eta beharrezko mobiliarioaren erosketak (etxetresna elektrikoak batez ere, baldin eta hauek ez badira esleipendunaren erruz edo bereri egotzi ahal zaion arrazoi bategatik hondatu), eta esleipendunaren eskura jartzea. Bere jabetzakoak diren etxetresna elektrikoek konponketa handiak (200 eurotik gorakoak), Udalak ordainduko ditu.
2. Eraikuntzaren kontserbazioa. Eraikuntzaren kontserbazioa bermatzeko beharrezko gastuak, orokorrean, Usurbilgo udalaren kargura joango da (ez bazaizkio lokalaren jabeari egozgarriak. Kasu honetan honek ordainduko dituelarik). Hala ere, esleipendunaren kontura joango dira berari atxiki dakizkion arrazoiengatik ondoriozta daitezkeen kalteen kostuak, eta baita ere mantentze-konponketa gastu txikiak (200 eurotik beherakoak).
3. Zerbitzuaren eskaintza egokia izan dadin gerta daitezkeen ezintasunetan laguntzea esleipendunari.
4. Usurbilgo udalak, kontratua indarrean dagoen epean, lizitazio honetan jasotako lanak zein prestazioak, esleipenduna ez den beste inorekin ez kontzertatzeko konpromezua hartzen du, non eta, ezinbesteko egoerengatik edota aipatu esleipendunak betetzen ez delako, denboraldi baterako zerbitzuaren prestakuntza bere gain hartzera behartua aurkitzen ez den.



Usurbilgo Udala



5. Eraikuntza, bere instalakuntzak eta mobiliarioa egoki deritzon kopuruetan aseguratzen behartua dago Usurbilgo udala, eta eraikuntza beraren eraginez sor daitezkeen kalteen erantzukizun zibilerako aseguru bat ituntzera.
6. Jabearen erruagatik izan daitezkeenetatik aparte, interes publikoa izateagatik Usurbilgo udalak zerbitzuaren kudeaketa zuzenean bere gain hartzeak esleipendunari sor dakizkion kalte-galerengatik ordaintzea, hala dagokionean.
7. Oinarrizko horniduren fakturak (argia, ura eta estolderia, gasa eta hondakinak) ordaintzea.

30.- USURBILGO UDALAREN ESKUBIDEAK

a) Araketa eta kontrola:

Kontratu honetan exigitutako zerbitzuak bere osotasunean arakatuak izan daitezke Usurbilgo udalaren eskaeraz, hala nola, instalazioen funtzionamendua, barneko ordena, lokalen eta zerbitzuen garbitasuna, osasun baldintzak etab... Nolabaiteko urritasunik nabaritzen bada dagokion akta jasoko da. Honek, lehenengo aldian idatzizko ohartarazpena eragingo du eta bigarrenean kontratua deuseztatuko du, kontratugilearentzako inolako eskubiderik eragin gabe. Honek lokala utzi eta bertako gauza guztiak Udalaren esku utzi beharko ditu, errekerimendua egiten den datatik hamabost egun naturaleko epearen barruan. Lokala uzten ez badu, hertsapenezko eta premiamenduzko neurri guztiak erabili ahal izango ditu Udalak.

b) Usurbilgo udalak, bestela dagozkionen kaltetan gabe, honako ahalmen hauek izango ditu:

1. Esleipendunaren kudeaketa fiskalizatzea, horretarako, zerbitzua, obrak, instalakuntzak eta lokalak eta kontratuaren gaiarekin zerikusia duten agiriak araka ditzakeelarik eta beharrezko prestakuntza mantentzeko edo birjartzeko aginduak eman ditzakeelarik.
2. Esleipendunak, berari atxiki dakizkion arrazoiengatik ala beste batzurengatik zerbitzua eskaintzen ez duenean, zabarkeriaz eskaintzen duenean edota eskaini ezin dezakeenean, zerbitzuaren exekuzio zuzena hartzea denboraldi baterako. Era berean, Usurbilgo udalak esandako eran eskaintzeari uko egiten dioenean ere.
3. Esleipendunari, izan ditzakeen urrapenengatik dagozkion zuzenketak ezartzea.
4. Aurreikusita dauden arrazoiengatik kontratua iraungitzea.

31.- HUTSEGITEAK

A) Hutsegite arinak izango dira:



Usurbilgo Udala



- a.- Esleipendunak bere obligazioak atzeratzea, bete behar dituenean.
- b.- Udalak emandako jarraipideetan desobedientzia arinak.
- c.- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.
- d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.
- e.- Eskatutako datu eta informazioak ematean, atzeratu edo akatsak izatea, esleipendunari egotz dakizkiokeenak.
- f.- Hainbat arrazoi dela-eta zerbitzuan gerta litezkeen aldaeren komunikazio falta, arinak direnean.
- g.- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, beti ere atzeratze hori 24 orduetik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.
- i.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzeari.

B.- Hutsegite larriak izango dira:

- a.- Hiru hutsegite arinaldi berean egitea, edo bi hilabeteko epean.
- b.- Bere langileriaren portaeraren kontrola egitekoan, erabiltzaileei buruz nahiz udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki kontratu hau arautzen duten araudiari buruz, zabarkeriaz jokatzeari.
- c.- Esleipendunaren jardunak eraikinaren edo udal jabegoko ondasunen balio-galera ekartzean.
- d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala ez ematea, baldintza pleguak edo udal ordenantzaren xedaturikoa urratuz.
- e.- Kontratuaren objektuan jasota ez dagoen jarduera bat egitea.
- f.- Adosten den ordutegia edo egutegia ez betetzea edo aurkeztutako proposamenean jasotako edozein baldintza (hobekuntzak barne) ez betetzea.
- g.- Esleipendunaren oinarritzako betebeharren arau hauste larria.
- h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.
- i.- Erabiltzaileen eskubideak ez errespetatzea (hizkuntza eskubideen urraketa barne).
- j.- Prezioen inguruan ezarritakoak ez errespetatzea. Honen barruan dago, prezio zerrendak une oro erakusgai ez izatea.
- k.- Ordaindu beharreko kanona epeaz kanpo ordaintzea (hilaren lehenengo 10 egunak baino beranduago).
- l.- Erreklamazio libururik ez izatea edo hau eskatutakoan ez ateratzea.
- m.- Esleipendunak, pleguetan edo haren eskaintzan adierazitako edozein betebehar edo baldintza ez betetzea, orri honetan hutsegite arin edo oso larri moduan tipifikaturik ez daudenean.

C.- Hutsegite oso larriak izango dira:

- a.- Kontratututako zerbitzuak ematen ez hastea udalarekin adostutako epean, ezinbesteko arrazoiaren ondorioz ez bada.



Usurbilgo Udala



- b.- Kontratutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoko epean, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- c.- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan, arrisku larria eta zuzeneko eragiten dutenean.
- d.- Plegu hauetan xedatutako hizkuntza betebeharrak behin eta berriz urratzea.
- e.- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, haiek ezarrita dituzten legez edo arauzko egitekoak burutu ditzaten galarazteko.
- f.- Zerbitzua bertan behera utzi edo etetea, esleipenaren epea amaitu gabe egonda, Administrazioaren baimenik gabe.
- g.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari adskribatutako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.
- h.- Langilegoa, Gizarte Segurantzza, edo Arriskuen Prebentzioari buruzko legedia ez errespetatzea zerbitzua ematerakoan.
- i.- Bi hutsegite larri edo gehiago egitea.
- j.- Bi hilabeteko epean kanona ez ordaintzea.

32.- ZIGORRAK

Esleipendunak egindako hutsegiteak dagokion udal organoak honela santzionatuko ditu:

- Hutsegite arinak 200 €tik 750 €tako isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsi egingo da urte beraren barruan 15 hutsegite arin eginez gero.
- Hutsegite larriak 751 €tik 1.500 €tako isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsi egingo da urte beraren barruan 10 hutsegite larri eginez gero.
- Hutsegite oso larriak 1.501 €tik 3.000 €tako isunaz zigortuko dira. Honekin batera, behin betiko bermea galduko du, eta gainera beste hainbeste jarri beharko du esleipendunak, edota kontratua hautsi egingo da, hutsegite oso larritzat kalifikatutako b), c) eta d) puntuetako hutsegiteak izanez gero.

Zigorrez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio esleipendunak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, eta abarrei dagokien zenbatekoaren truke.

Hutsegite larri edo oso larrien kasutan, udalak kontratua hautsi ahal izango du.

Hutsegiteak dagokion udal organoak honela santzionatuko ditu:

Ezarritako isunen kopurua eta, bere kasuan, kalte-ordainena, kitatuko da jarritako bermetik.



Usurbilgo Udala



33.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Baldintza Plegu honetan xedatutakoak eta SPKLTBren 223-225 artikuluetan aurreikusitakoak izango dira.

Kontratua esleipendunaren erruz amaitzen denean, bermea exekutatu da, bere kasuan administrazioari sorturiko kalteengatik erantzun beharreko indemnizazioaren kaltetan gabe.

34.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa izango du eta bere prestaketa, esleipena, eraginak eta iraungipena plegu honen arabera arautuko dira, eta bertan aurreikusirik ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Kontratuen testu bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, eta Lege honen aurka ez dagoen heinean urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.

Ondoren zuzenbide administratiboko bestelako araudiak aplikatuko dira, besteak beste:

1. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.

2. 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.

Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.

Klausula Administratibo Berezien Plegu hau eta espedienteari atxikita doakion gainontzeko dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik balego, Plegu honetan xedatutakoa nagusituko zaio beste guztiari.

35.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazio bideari amaiera emango dioten erabakien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango zaio, jurisdikzio hori arautzen duen legean jasoa dagoenaren arabera. Horrez gain, kontratuaren gainean sor daitezkeen auzi-gorabeherak administrazioarekiko auzi-errekurtsoen jurisdikzioaren menpe jarriko dira, nahiz eta aldeek erabaki dezaketen beren auzi-gorabeherak arbitraje bidez konpontzea, indarrean den legerian zehaztua dagoenaren arabera.



Usurbilgo Udala



Era berean, kontratutik ondorioztatzen diren liskarrezko kontuak administrazioarekiko auzialdiko epai-organoen aurrean aurkeztutzat joko diren arren, alderdiek erabaki ahal izango dute beraien arteko auziak arbitraian jartzea, indarrean dagoen legerian xedatuta dagoenaren arabera.